IRAKASGAI
11
12
13
14
15
ERRONKA
91
JARDUERAK
10urtea

AGURRA EDO

Harrigarria da hamar urte pasa ondoren Porrontxo jaiek bereganatu duten ospea.

Hasieran idei zoro bat besterik ez zen, goitik antolatuak zetozen jaietaz nazkatuta zegoen jendeak sortu zuen idei bat. Inork ez zekien noraino iritsi zitekeen idei bat.

Baina saiatu behar ginen; santuen inguruan antolatuak dauden jaietaz nazkatuak geundelako, ikusteko eta ez parte hartzeko diren jaiek ezer esaten ez zigutelako, guk geuk gure jaiak antolatu nahi genituelako...

Hamar urte izan dira Porrontxo jaiek bete dituztenak; kuadrilek eta auzoko jendeak bere ilusioz eta lanaz gauzatu dituzten hamar urte hauek pasa ondoren harro eta ozenki esan dezakegu: lortu dugu!, hona hemen hasierako ametsa: "egiatar guztion artean eta guztiontzat antolatutako jai herrikoiak".

Hamarkada hau gogorra izan da (hitz guztiak ez dira arrosak izango, ezta?). Auzoak zenbait gertaera bizi izan du: gaztetxearen sorketa txalotu zuen bezala gaur bere desagerketa salatzen du, eta zer esan Plaza Haundiko "parkeaz"?, nori ez zitzaizkion begietan argitxoak piztu Mármoles Cantabria delako lantegia lurrean ikusi zuenean? baina... ez digute kasorik egin, gehienetan bezala Egiak ez du garrantzirik, Egia ez da Donostiako auzo bat (noski ezetz!), Egian mendietan bizi diren basapizti horiek -gazteleraz "atorrantes" deiturikoak- bizi bait dira.

Hala ere, boterea duten horiek beren gorputzeko azken zirrikitu horietan Egiak antolatzen dituen jaietaz ezin emana dute; azken finean beraiek nahi duten diru guztien ez dutena, guk geuk gure lanaz eta ilusioz lortu[illegible] ezin emana dute, ezin emana eta b[illegible]etc

egiatarrek?, nork ez du esaten egun batean Egiatik jeitsi eta Donostiako kaleak bereganatuko ez dituztela?, asko dira.

Bai, zerri zikin horiek, asko gara eta gehiago izango gara, zuek eskeintzen dituzuen konpetitibidade eta pasibokeriak bazter batean utzi eta hamar urte hauetan dibertitzen ikasi dugu, dibertitzen gure herriak eta auzoak dituzten arazoak ahaztu gabe.

Hamar urte pasa dira eta oraindik "ez gaude denok": Montxo, Joxean... hainbeste preso eta errefuxiatu!. Aurten Porte, Oskar eta Txemari gure artean dauden bezala Porrontxoetako hamaikagarren urtean izango den 92an (hainbeste ospakizun arraro ekarriko digun urte horretan) gurekin egotea espero dezagun. Auzoratuko ditugu.

Egia da, 92-ak "sasi-ospakizun" dexente ikusiko du, eta zergatik ez horien artean gaur egun soldaduzka egiteari ezetz esan dioten guzti horien lasaitasuna?. Porrontxo jaiak ospatzerakoan ezin ditugu Egian dauden insumiso guztiak ahaztu, agur berezi bat beraientzat eta jaiak ondo pasa ditzatela.

Eta noski!, hamargarren urte hau ospatzeko emakumeak behar ditugu, emakume askeak, jaietan etxean sartuak egon beharko ez dutenak, kaleetatik inongo beldurrik gabe joan daitezkeenak.

Egiatarrok!, neskak eta mutilak!, gazteak, helduak eta haurrak! Atera zaitezte kalera, Egia geurea da. Ondo bizi jaiak eta indarrak hartu hurrengo urterako. Ondo pasa!

JAI BATZORDEAK

EGITARAUA

ASTEAZKENA 11

19etan: Buruhaundi eta erraldoiak Tirri Tarra txarangarekin.

20etan: Suziri, pregoia eta jaien hasiera.

20etan: Kuadrilen jeitsiera Tirri Tarra eta Porrontxo txarangekin.

23etan: Dantzaldia Basakabi taldearekin.

23'30etan: Nekaezinak Txaranga.

1etan: Aulkien jokoa.



OSTEGUNA 12

12'30etan: Oreretako dultzaineroak.

17'30etan: Buruhaundi eta erraldoiak Basalotsati txarangarekin eta Antxetako hankapaluekin.

18etan: Haur kuadrilen jeitsiera Basalotsati txarangarekin.

19'30etan: Haur Dantzaldia Ortzadar taldearekin (Plaza Berrin)

20etan: Kuadrilentzako jokoak: ping-pong, olinpiadaren finalak.

20'30etan: Izengabeak Txaranga.

23etan: Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

23'30etan: Nekaezinak Txaranga.

1etan: Prakak erorietako lasterketa.

Festa Batzordeak eskerrak ematen dizkie Porrontxo jai hauen egitaraua egiten lagundu duten dendari eta auzokide guztiei

DATORREN URTEKO EGITARAUAN IRAGARKI BAT JARTZEA NAHI BADUZU, ARRANO ELKARTEAN JAI BATZORDERA DEITU DEZAKEZU.

22etan: Kuadrilen afaria Tejeria kalean eta flanak jateko txapelketa.

22etan: Oria Txaranga.

24etan: Amnistiaren aldeko kalejira.

1etan: Dantzaldia Trakets taldearekin.

1'30etan: Zubietako ttuntturroak.

3etan: Jatorrenak txaranga.

5etan: Baratxuri zopa.

6etan: Izengabeak txaranga.

IGANDEA 15:

7etan: Bigantxak Tejeria kalean.

8etan: Diana Izengabeak txarangarekin.

10etan: Oria Txaranga.

10'30etan: Txalupen jeitsiera Urumeatik (Koipe-Sta. Katalina)

11etan: Pilota-txapelketaren finalak Atotxako frontoian.

12etan: Jotak "Alegría de Navarra" Plaza Berrin.

17etan: Rafa Aldasoro magoa

18etan: Erromeria: sardinada; Trebeska eta anoetako dantza taldeak; trikitrilariak: Alkorta anaiarrebak; fandango, arin arin eta irrintzi txapelketa kuadrilen artean...

19'30etan: Jatorrenak txaranga.

20etan: Erromeriaren barruan Ortzi folk taldea.

22etan: Azken traka eta jaien amaiera.

Azken oharra: antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.

Nota: La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

OSTIRALA 13

12'30etan: Trikitrilariak: Alkorta anai-arrebak.

17etan: Haur jolasak.

18'30etan: Buruhaundi eta erraldoiak, Nekaezinak txaranga.

19'30etan: Kronoeskalada Karmengo Ama kalean gora.

20etan: Kuadrilentzako jokoak: mus finalak, sketx.

20'30etan: Jatorrenak txaranga.

21etan: Kantaldia: MIKEL MARKEZ, JON TXURIO (Plaza Berrin).

23etan: Auzoko txistularien kalejira.

24etan: Dantzaldia Mintxoriak taldearekin.

24etan: Izengabeak txaranga.

1etan: Banana dantza jokua.

3etan: Oria Txaranga.

LARUNBATA 14: PRESO ETA ERREFUXIATUEN EGUNA

7etan: Bigantxak Tejeria kalean.

8etan: Diana Oreretako dultzaineroekin.

11etan: Haurrentzako txokolate jana Gladys-enean.

11'30etan: Sebastopoleko Titiriteroak.

12'30etan: Baloi-manta eta zator-futbolaren finalak.

12'30etan: Antzerkia Hika Taldea "Y sin hacer la cama" (euskaraz)

16'30etan: Kuadrilentzako jokoak: putxerada, tomate gerra goitibeherak, kotxeak bolkatu... Izengabeak txarangarekin.

20etan: Kuadrilen kalejira Porrontxo eta Tirri Tarra txarangekin.